

FUNTSEZKO BALIABIDEAK: Gure enpresak hainbat baliabide beharko lituzke gure bezeroengana iristeko. Lehenik, baliabide fisikoak, hau da produktua bera fisikoki iristea bezero edo erosleengana. Hau aurrera eramateko, produktua guk eskuratu ondoren web orrian txertatuko dugu eta erosleen eskura egongo da. Erosi ondoren, guk hartuko dugu erosleen gana produktua iristearen kargua. Horrez gain, Baliabide intelektualak, hau gure web orrian gordeta egongo ziren datuak, hemen hainbat informazio eta erosi aurretik kontsultatu ahal diren ezaugarri daude. Beste alde batetik, giza-baliabideak, hauek beharko genuen pertsonala da gure produktu hau sortu edo web orria kontrola dezaten, kontuan hartuta produktua ez dugula guk geuk egin behar eta beste empresa bat arduratu behar dela produktu hau gauzatzeaz parebat prozesutatik pasa beharko zen baina guk soilik produktua egiteagatik ordainduko genuke, pertsonal bat kontratatu gabe. Web-orria kontrolatu eta informazioa antolatzeke gure taldeko lankideen lana izango zen, hau da arazorik ez zen egongo kasu honetan. Finantza baliabideak ordea, guztiz seguru ez gauden gauza bat da, produktuaren arrakastaren arabera dagoen gauza bat da, printzipioz produktua sortzea ez da garestia, eta kontuan hartuta merkea dela produktua, jendeari interesgarria iruditu litzaioke, produktua arrakasta ez balu prestamo bat eskatu beharko litzateke produkzioa aurrera eramateko, baina hori ezin da momentuan jakin

